

ALKATE JAUNARI GUTUN IREKIA “nori berea, zuzenbidea”

(esaera zaharra)

Mikel UGALDE



Esaera zaharrak dioen bezala, bakoitzari berea aitortu behar zaionez gero, garbi dago alkate izaten jarraitzeko eskubide osoa duzula, hauteskundeetan lortu duzun garaipena nabaria izan dela eta agintealdi berrirako alkatetzari eutsi diozula. Nik neronek beste apustu bat egina neukan, baina ikusten denez garaile zaitugu.

Hemendik aurrera lau urte daukazu Erreteriarako agintaritzan jarraitzeko, beharrezkoak diren pausoak aurrera emateko, gure ondorengoek mereziko duten udalerrira erakiz joateko. Garrantzi haundiko urteak direla bistan da. Bertako arazoak nolana hikoak ez direlarik, europarren eraginak sorteraziko digu kezka franko datorren urtetik aurrera.

Halaxe da. Baina, Madalen jaiak ospatzera goazen honetan, arazoak zertxobait ahaztu eta jaiak bizitzeko garai honetan, ez zaitut asperrarazi nahi. Ez dut uste hain zuzen festetan irakurtzeko kontua izango denik. Festak, dakidanez, ez dira betirako izaten eta amaituko dira. Ondoren, bakoitzak bere esparruan, lanari ekin beharko diogu.

Oraingo hau labur bezain zehatza izango duzu.

Hemendik aurrera egin beharreko lanak honako hiru zeregin hauetan bilduko dituzulakoan nago: Iragana jasoz, egungoa landuz eta geroa erakiz jokatuko duzula, alegia.

IRAGANA JASO

Norantz goazen erabaki aurretik nondik gatozen kontutan izatekoa izango da. Arinkeria bat izango litzateke nondik gatozen kontutan izan gabe udalgintzari ekingo bazenio. Nondik gatozen ez duzu ahaztu behar alkate jauna. Horretarako ez duzu kondairan ibilera luzetan nekatzen ibili beharri. Azken berrogeitamar urteak hor daude Erreterian eman den, emanerazi duten, aldaketaren lekuko. Gogoan dauzkagu gerraostean hemen eman zen neurrigabeko hazkuntza. Kanpotarrak samaldan zetozen panazko jantziak soinean zituztela, maleta besapean hartu eta lana aurkitzeko esperantzaz. Kanportarren etorrera berez ona izan zitekeen, batez ere hainbat jenderen premia larria gogoan hartuz. Guri ere beste horrenbeste gertatu izan zaigu inoiz. Euskaldunok ere sarritan jo izan dugu itsasoz bestaldera lanera. Hemen, ordea, bada kontutan izateko diferentzia bat.

Erreteria garai honetan ez zen, neurri batetan, bere etorkizuna erabakitzeko gai, erabaki nagusiak beste norbaitek eta beste nonbaiten hartzen zituen. Ez da herritarrok nahiko genukeen Erreteria oraingo hau, ez da plangintza egoki baten fruitua izan. Gauzak horrela joan dira eta horrek ez du erremediorik beharbada. Joanak joan, kondaira aldatzerik ez dagoenez gero, hemendik aurrera idatziko dugun historian orian arteino gertatuak gogoan izango dituzulakoan nago.

EGUNGOA LANDU

Iraganak berez ez ditu besterik gabe gauzak konpontzen. Egungo arazoak bideratu beharrak emango dizkizu burua-usteak. Mutiko nintzela Viteri eskoletan ikusi nuen erakusketa hura daukat gogoan. Herriko lantegietan egiten zenaren aurkezpen biribila zen erakusketa hura. “Proporzioan Europak herririk onena omen gaituk hain desberdinak diren gauzak egiten” entzunez irten nintzen txundituta erakusketa hartatik. Haiek lehengo kontuak ziren. Gaur egun, berriz, balizko olak ez du burdinik ematen.

Egungo egoeraren diagnostikoa egina izango duzu noski. Langabezia, industriaren beharakada, drogomentasuna, kale giroa eta abar hor dauzkagu aurrez aurre. Horretaz gain zenbaitetan ez dakit zenbateraino herri bat osatzen ari garen, Erreterian bakar batetan bizi ote garenaren zalantza sortzen zait sarritan: hiri gunearen inguruan osatu den herria alde betetik eta auzoetan bizi den biztanlegoa bestetik.

Ez gaude ez egoera honekin batere konforme. Ez dugu Erreteria gure seme-alabentzat igarobide soila izaterik nahi, ez gara lotarako kokagune bakarrik izatearekin konformatzen. Ez dugu, gure herrian lanik ez dagoela eta, bertako gazteak kanpora jo beharrean aurkitzerik nahi.

Era askotako arazoak dauzkagu. Industria erakartzeko lur eta kondizio egokiak behar ditugu, egungo gizarteak eskatzen dituen zerbitzuak, hirigintzak guardaino urkatu dizkigun espazioak, geroa erabakiko duten plangintzak. Dena da beharrezko. Horretaz gain, ordea, bada denon artean gaintitu beharko dugun desafioa: herrigintzarena.

Gizartea bera mamitzeak, osatzeak eta integratzeak emango dizkigu lanak. Beharbada oraindik aprobatzeke daukagun asignatura da hori. Hirigunean bizi garenok beharbada ez dugu Errentiaren izaera bere osatasunean kontutan hartzen. Eta, agian, auzoetan ez da gure herriaren jatorria eta nortasuna sakonki aintzat hartzen. Belaunaldien arteko etenak sortezatzen dituen munduez gain, badirudi zenbaitetan mundu desberdinetan bizi garela.

Lotsagabekeria ere izango dela pentsatuko duzu agian, baina jai giroan aurkitzeak ematen duen lizentziaz baliatuz, gure herri hau aberasten saiatu behar gara, ez diruz, izaeraz eta gizatasunez baizik. Hor dago erronka nagusia.

GEROA ERAIKI

Zer egin behar duzun jakingo duzulakoan, zer egin behar ez den adierazten ahaleginduko natzaizu ausardi apur batez. Industria erakartzea, azpiegiturak hobetzea, ekologiaren aldeko apustua egitea, bizimodu eroso eta atseginerako hirigintza lantzea, lanbideak ugaltzeko pausoak ematea, ongi dago. Ezinbestekoa da. Baina ez da aski. Ez gaitzela horretan gera. Gizarteak berak izan behar bait du agintari orokoren xede nagusi.

Gizartearen aldeko benetako lanak pertsonaren garapena du gogoan. Lan isila da, iluna zenbaitetan, amaitzen ez dena, beharbada botuen esker onik jasotzen ez duena. Halaz ere gutzit garrantzitsua, nahitaezkoa aurrera egin nahi baldin badugu.

Horretarako, behe behetik hasi behar eta, begiz eskola bera jotzen dut lanerako ezinbesteko gune bezala. Udala eta eskolaren arteko lotura sendotzea, bertatik jarraitzea, irakaskuntzaren inguruan harremanak sortzea, aukera elebidunak ugaltzea, irakaskuntza heziketaren esanetara jartzea, eskolaren inguruko denbora librearen gidaritza udalak berak hartzea, garrantzizko zeregina da gizartearen geroarentzat.

Ez diot eskolari eman ez dezakeenik eskatzen, ez dut gizartea eskolak bakarrik aldaeraziko duenik pentsatzen. Askoz gehiago dezakeela, ordea, bai. Aztertu beharreko puntua da alkate jauna. Egindako lana haundia baldin bada, ez da nolana hikoia hemendik aurrera burutu beharrekoa.

Irakaskuntza elebiduna eta kalitatezkoa, erreformak dakarren berrikuntza eta lanbide heziketak berekin duen apustua hartzen ditut gogoan, besteak beste, gizarte hau osabidean ipintzeko. Eskola izango bait da gizartearen osasunaren maila erakutsiko duen termometrorik adierazkorrenatarikoa.

Gizartegintza ez da eskolan bukatzen. Udalaren ikuspegitik garrantzi haundikoak dira herri mailako elkarteak oso kontutan izatekoak dira. Gaur egun lanean diharduen hainbat taldek goratzen du herriko kultura. Talde lanak kultura berezi bat sortzen du, elkar lanerako joera, elkar entzuten ikastea, gizalegea. Errenteriak baditu urtetan lanean diharduten taldeak. Arreta berezia sor zaie guzti hauei, berauek indarberritzen bait dute giza bizitza.

Jakin badakit, alkate jauna, apustu latza dela. Epe laburrera lanean ohituak gaudela, pertsonak hezi eta osatzeak denbora eramaten duela, orain erein daitekeen haziak fruitua gerora emango duela, guk egin dezakegunaren emaitza beste batek jasoko duela. Hala da. Baina ez dago beste biderik. Arlo honetan eginiko lana, alkate jauna, ez da, agian, nabarmenduko. Egiten ez den lana bai, hori agerian azalduko da eta, serio ekiten ez bazaio, ondorio gaiztoak ekarriko ditu...

Gizatasunak eta teknologiak bakarrik ziurta dezake gure geroa. Teknologiaren apustua biano latzagoa da gizarteak berak aurrez aurre duena. Hormigoiak irentsi gaituen honetan arnasberri gaitzakeen leihoa zabaltzeko gai izango al gara!

Besterik ez alkate jauna. Madalen jai on batzuk igaro.

